

# Bizenta Mogelen mendeurrena

Euskarazko idazleetan emakumezko lehenba lehen Bizenta Mogel, duela berrehun urte, 1782. urteko ekainaren seian Azkoitian jaioa, bere aita herri hartan mediku zen garaietan. Juan Antonio Mogel **Peru Abarka**-ren egilearen iloba eta Juan José **Baserriar nekezaentzako eskola** idaritzaren egilearen arreba.

Mogel deitura Nafarroako Milagro herrikoa zen izatez. Bizentaren aitona, Bizkaiko Markinara etorri zen mediku eta hemen jaio zen aitona, Juan Ignazio Mogel Pérez de Almazán zeritzana, 1718ko abuztuaren batean. Bere aita bezala, mediku karrera hautatu zuen eta Nafarroako Iratzen egin zituen ikasketak, 1739an burutzeko. Gero, berri, Madrid-en birretsi zuen lizentziatura 1741ean. Garai hartan, hemengo foru legeak eskaizten zutenaren arabera, odolara garbiketazko ageriak atera behar izan zituen, aitonen seme agertzuz Bizkaiko Batzarren aurrean 1771ko urriaren 25ean. Hortik dakigu bere jatorriko deituetatik Mogel, Pérez de Almazán eta Jiménez Milagrokoak zituela, eta Cornado eta Ezkerra Errioxako Alfaro-koak. (Ikus, F. Amador Carrandi-ren **Catálogo de Genealogías**, Bilbo, 1958, bere 534-535 orrialdeetan). Mediku famatua izan zen bere denboran. Markinara Xemeingo alaba batekin ezkondu zen eta hortik sortu ziren Mogel Urkizatarak. Besteak beste, lehen aipatu dudan Juan Antonio eta Juan Ignazio izan bereko eta gainera mediku izango zen, Juan José eta Bizentaren aita. Mediku ospetsua hau ere, Amigos del País erakunde-koa eta bakuna txertakuntza aurrerapenak ekarri zituen. Mogel-darren bizitzaz eta lanaz, bereziki medikuntza aldetik, Justo Garatek argitaratu zituen berriak zehatzenak **La época de Astarloa y Mogel** deritzan liburuan (Bilbo, 1936).

Arestian esan bezala, Bizenta, Azkoitian jaio zen. Urte bete besterik ez zuen bere aita Zestoan hil zenean. Aiton-amonak oraindik bizi ziren eta Juan José eta Bizenta neba-arrebak berengana eramantzen zituzten, Markinara. Aitona 1785ean hil zen eta amona 1794an. Osaba Juan Antonio jabetu zen biekin eta honen laguntzaz hezkuntzak burutu. Osabaren **Peru Abarka** liburutik ezagutzen ditugu garai hartako bizitza erak, Juan Josek ordea bere garaiak erlijio giroko moral aburuiak erakusten dizkigu. Naiko hertsia gaurko ikuspetik. Eta, Bizentak literatur mota iraunkoragoa landu zuen; batez ere **Esopo**-ren alegiak euskaratzeak. Gipuzkeraz idatzita eta **Ipui onak** izenburuz argitaratu zituen 1804. urtean. Juan Antonio osaba hil zen urte berean. 1880an, Bilboko "Beti bat" aldizkarian zatika birargitaratu zen eta 1912an Donostian Euskal Estantalek berri Txomin Agirireren hitzaurrez. Azkena, neuk prestatuak, **Ausppa** Liburutegiak 1963an. Beraz, liburu bezala, hiru argitalpen ezagutu ditu.

Hitzaurrean argi adierazten duenez, osabaren laguntza izan zuen liburuaren orratzapenean, eta Bizenta berak hitz-lauz egindako berrogetahamar ipuineri osabak bertsoz idatzitako zortzi alegik jarraitzen dizkiete. Bizentaren idazkeran, naiz eta gipuzkeraz egon, ezagun da bizkaitar kutsu eragina. Bestalde, esan beharra dago, jostera ez zuela hain ondo zaintzen eta itzulpen itxura gehiegi duela, eta horrek irakurtegi traketis samarra bihurtzen duela.

1820. urtean, Manuel José de Gallego-ren aginduz **Luis de Borbon** adierazpena itzuli zuen (hamaika orrialdeko lana, urte berean Pedro Antonio Apraizek Bilbon argitaratu, erdaraz eta euskaraz). Bizkaieraz dago eta **Ipui onak** idazkera jatorragoa du.

Hortiez gainera, Bilbon, bizkaieraz, **Gabon-kantak** idazten zituen. 1818koak ezagutzen dira V.M.B. izenpeaz, azken letra senarraren deituratik hartua. Gerorako, 1832. urteko Gabonetan, "Peru eta Yoane" deritzan bertsozko kontakizuna. Hauetan, nonbait, José Paulo Ulibarri izan omen zuen eragile.

Erdi aroan, **Onaz** eta **ganbo** garaiak anaiarteko borroka haieran, Andre Milia Lasturkoren inguruan badira zenbait eresi emakumezkoak eginak, baina idazle bezala Bizenta Mogel Elgezabal dugu lehen, beste hizkuntzetan ere emakumezko urri agertzen den garalan. Gainera, garaioko moderi jarraituz, berandutxo bazebilen ere, neoklasiko literaturan erabili ziren alegiak hartu zituen gaitzat eta hortan lehen ez bazen ere, eta ere ez zen azkena izan. Eta, emakumezkoak kultur-

gintzan edozertarako ahalmenak zituen ala ez, zalantzak uxatu zituen. Horrez gainera, zer esanik ere ez, ipuien eremuan, haize freskoz berritu zituen euskal literatura. **Ipui onak** liburuaren hitzaurrean bertan zion bezala, betiko ipui leloez gainera beste zerbait gehiago eskainiz. Hortan agertu zituen bere doain berriak eta hortan du bere ohorea.

Bere azken urteetan Bilbon bizi zen (hobeto esan, Abandon) Eleuterio Basozabalekin ezkondua, eta alargundirik hil zen 1854. urteko ekainaren 29an, azkenera arte euskaltzalasunean zintzo jarraituz, alegietako esaldid haieri jaramon eginez: "Gorde zaitie hitz labainetaik, ia alde egizu gezurtietatik. Dionak: "ez det inoren beharrik" burua dauka galduri".

Juan SAN MARTIN

Vicenta Moguel Elgezabal, la primera de las escritoras en euskara, nació en Azcoitia el 6 de junio de 1782, siendo a la sazón su padre Juan Ignacio de Moguel y Urquiza médico titular de la villa.

Los Moguel eran oriundos de Milagro (Navarra), con una rama familiar en Alfaro (Rioja). Un bisabuelo de Vicenta se instaló de médico en Marquina-Jeméin (Vizcaya), quien tuvo un hijo llamado Juan Ignacio de Moguel y Pérez de Almazán, nacido en Marquina el 1 de agosto de 1718, graduado de

## Omenaldi herrikoia

Omenaldi konzeptuaren barnean ba, dira zenbait maila eta hoietako bat omenaldi herrikoia dugu. Herriaren dinamika gogoz irizten dena, halere. Ba da beste mota bat, esaterako, herriaren esentzialarekin zerikuzirik ez duena, eta horretako asko ikusteko ohihurtu ginen aurreko egoera politikoak herriaren izena zapi beltz batez estalirik zeukena.

Kultur-berreskurapenaren prozesuak urte mordoa eramango digula bisian dago. Ezin daiteke mirakulurik eska eta gure Herria dagoen zuloatik atera ahal izateko ahalgiri franko egin beharko da, bidean estai barik.

Eta, hala ere, emaitza baikorra, positiboa, ez da gaitza zerra. Eginkizun dagoena, eginkizun gura liteke.

Honek gure Herriaren hondamendia adieraziko luke. Baina ez du urte hitz ilun gehiagorik eskaini behar diodan irakurleari, eguneroko bizitza arruntak, berez, nahiko besterik ez gaitzen baitio. Eta gure lanean indartsuagoki joko dezakegin, etorkizuna begi zabal eta argiz auzertu behar dugu. Itzaropentsu izan behar, zer arrailo!

Omenaldi herrikoiaz zer ulertzen dudana adierazten "gogoz" irien behar dela ipini du. Herriaren dinamika erdiilua balego sentimenduzko azaltzeko askatasuna ez litzateke emango. Beraz, gogoa azaldu behar du herriak omenaldi herrikoia bilakatu ahal izateko.

Sarrera luzeak honen ondoren noan gaurko artikuluaren mamira.

Maiatzaren 30.ean Aramaioko Eguna ospatu zen Arabako herri hartan, antolatzaileek bertaraino ibarrekin era guztietako harremanik dutenak bildu nahi zituztelarik. Eta hein handi batetan lotu zuelako esan daiteke, jende asko azaldu baitzen hara, goizeko lehen orduetatik herriko kaleak giza jario batek alaitu zituelarik.

Arratsaldeko ordubetetan izan zen, ene eritzi, eguneko egitarauak eskainitako ekintzarik hunkigarriena. Euskal kulturaren bi gizon omenatu zituen Aramaioko herriak: D. Odon Apraiz eta D. Gerardo Lopez de Guereña. D. Odonek, azken orduan, egiari ezina adierazi zuen. Baina honek, ikusgarritasun apur bat galdu arren, ez zion ekintzari garrantzirik kendu. D. Odon hangoz guztien bihotzetan baitzegoen.

Aramaioko herriak bere eskerrina azaldu nahi izan zien bi gasteiztar hoi. Urte luzeetan zehar egindako lanarengatik jasotako ordaina, Hauze batura euskal kulturaren aldeko ardurak ekar dezakeen sari bakarra. Baina, esango nuke, gehienetan nahikoa. Ez dakit zer geriatuko den beste kulturetan. Ez du urte gurean beste lezariarik pasatuko dituenik. Baina ez noa gaurkora alderdi hau ikuzera luzaroko eukiko baitgenuke. Ez.

Omenaldi herrikoia herriaren baitan den eskerrina azaltzea dela deri-

tzait eta hauze da D. Odon eta D. Gerardoekin egin dena. Arabak emandako bi gizon haundi hauek heuren lanekiko onespina jaso behar zuten. Eta "behar" diot, Aramaiok gizon hauekin zor bat zuelako. Eta zorrik zor dira, ordaintzen ez diren bitartean.

Pozgarria izan zen, benetan, omenaldian parte hartzea. Bizente Góikotxea zine aretoko jarlekueetan denarik jenderik ikus zitekeen.

Hantxe zeuden diela hirurogei eta hamar urteko D. Odonen lagun aramaiorak. Eta D. Gerardoaren biloba jaioterria. Eta medikua artzainaren ondoren eserita. Ez baitzen sarrearen karnetarik ezalzen, aurreritzi guztia atean uzten zirelarik. Nahiz eta asko aburu desberdinekoak izan.

Aramaioko herriak omenatu nahi izan zituen kulturaren langile hauek.

Jakintsuaren meritua ondo neurtu diuen herri apalaren omenaldia izan zen Maiatzaren 30.ekoa. Herriaren eskerrona jakintsuaren lanaz uztartu nahi izan zen, denborak sekulan ezereztatuko etengo ez duen besarkada ezkilorra ematen zelarik.

Kulturak bakarrik salbatuko du gure Herria eta D. Odon eta D. Gerardo Herriaren askatzaileak izaten salatu dira heuren bizitza luzeetan. Haintza zue!

Jose Mari VELEZ DE MENDIZABAL

Existen distintas variedades de homenajes de la misma manera que conocemos diversos modos de realizarlos. Pero seguro que ninguno supera en autenticidad al homenaje popular, aquél que nace de la voluntad del pueblo que lo ofrece.

He mencionado la palabra voluntad por considerarla totalmente imprescindible en cualquier acto en que se pretenda demostrar el reconocimiento a una labor o hecho que se desea premiar. Durante años hemos sido testigos de innumerables "homenajes populares", en los que la voluntad del pueblo era sustituida —por supuesto, impunemente— por la de los organizadores, únicos interesados en que aquellos se realizaran. Pero el pueblo, al que es difícil engañar, mostraba invariablemente su rechazo al acto.

Aunque no pudiera exteriorizar su repulsa. Por si acaso... ¡Cuántas medallas, placas, diplomas... concedidos sin motivo alguno justificado! ¿Y qué decir de esos nombramientos de hijos predilectos o adoptivos que, a la vuelta de poco tiempo han sido revocados?

El pasado 30 de mayo se celebró el Día de Aramaiona, en aquella localidad alavesa. Se pretendía fuera un motivo para que todos los que se identifican, de una manera u otra, con el valle aramaiarra, se

medicina en Irache (1739 y revalidado en 1741). Siguiendo la tradición de las sociedades de la época, se probó con todos los aspectos de honorio, probó su capacidad de una ejecución de la guía realizada en el año de 1771 (Ver el Catálogo de neologías de F. Amador Carrandi, Bilbao, 1958).

Vicenta tradujo la obra de Esopo al vasco, y publicó en 1804 el libro *Ipui onak*, también la dedicatoria a Borbon, Carlos IV, Arzobispo de Toledo.

Compuso cantos en aquella república y en su parroquia, siendo los de 1832. La Gaceta en 1818 van firmados con el nombre y las siglas V.M.B. que es el inicial del apellido de Eleuterio Basozabale. Bilbao (Abando) el 1 de agosto de 1854.

acercaron hasta el momento de actos programados por el Ayuntamiento, que se desbordó la opinión.

El acto más programado fue el homenaje que Aramaiona hizo a importantes homenajes, alavesa, en particular general: D. Odon Apraiz y Gerardo Lopez de Guereña, que se hizo constante en sus investigaciones y se hizo parte de la pregona y el acto de la cultura, en la liberación de los

Aramaiona se estos dos regularizar de menos de 10 años, mediante el sistema tributario y el sistema de D. Gerardo, que ha dedicado su presentes que ofrecer: el que aquellos por trabajado.